



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO APIRILAREN 5EAN
GOIZEKO 09:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Itziar Basterrika Unanue.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2022/03/29.

Batzarkideek 2022ko martxoaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- MIHISE KULTUR ELKARTEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Esp.zk.: ID.17/2022-0057

Ikusirik

Antton Aranburu Illarramendik, Mihise kultur elkartearen ordezkari gisa, aipatutako elkartearen Udal Erregistroan inskribatzeko eskabidea egin du 2022ko martxoaren 22an.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu du.

Kultura, euskara eta gazteria teknikariak aipatutako elkartearen irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du.

Kontutan harturik

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).
- Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Mihise kultur elkartearen irabazi asmorik gabeko elkartearen udal erregistroan



Usurbilgo Udala

inskribatzea.

Bigarrena: Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.